# LAMIAREN ISPILUA

EUSKAL MITOLOGIARI BURUZKO
ANTZEZLAN FAMILIARRA



# ABENTURAZ ETA SINBOLISMOZ BETERIKO ISTORIOA

*Lamiaren Ispilua* diziplina anitzeko **antzerki familiarra** da. **Euskal Mitologia**n oinarritua eta hizkuntza eszeniko berritzailea erabiliz, **artisau-txotxongiloak, maskarak, dantza** eta **gorputz-hizkuntza** uztartzen dituena.

Abenturaz eta sinbolismoz beteriko istorioaren bidez, lan honek esperientzia magiko bat eskainiko digu. Entretenitzeaz gain, **natura**rekiko eta **bizikidetza**rekiko errespetu-balioak transmititzen dituena.



# SINOPSIA



## "DENOK ARGIAK ETA ITZALAK DITUGU GURE BAITAN, OSOAK IZATEKO ITZALAK ERE BESARKATU BEHAR DITUGU"

Kattalin lamia, emozioen errekan zoriontsu bizi da. Baina egun batean, zerbait harrigarria gertatuko da: errekatik edango duten pertsonek haserrea eta nahasmena sentituko dute, urak haien bihotzak bigundu beharrean. Kattalinek gaiztakeria honen arduraduna ezagutuko du: Inguma, gizakien beldur eta desio ezkutuetatik elikatzen den itzal misteriotsua.

Bidaia arriskutsua izan arren, Kattalin ez da bakarrik egongo: Patxo Iratxoa, Ilargi, Tartalo eta Gizotsoren laguntzarekin, Ingumari ez ezik, bere barne itzalei ere aurre egingo die.

Emozioz, umorez eta edertasun bisualez beteriko ikuskizun honek Mitologia eta natura oso lotuta daudela gogoraratuko digu.

# ELEMENTU BEREIZLEAK



## EUSKAL MITOLOGIA

Euskal folkloreko ipuin eta izaki mitologikoetan oinarrituta. Ikuskizunak istorio horiek berreskuratu eta eguneratzen ditu, hezkuntza- eta kultura-konexioko tresna gisa.



## ANITZEKO ANTZERKIA

Espazio itxietan zein espazio irekietan antzezteko pentsatua

## ESZENOGRAFIA MINIMALISTA ETA BALIOANIZTUNA

Objektu mugikorrekin eta oihalekin, ibaitik kobazulorako espazioa modu erraz baina eraginkorrean eraldatzen dutenak

Patata Tropikala antzerkia



## ARTISAU-TXOTXONGILOAK

Tamaina handikoak (1,50 cm) eta adierazkorrak goma-aparrez eta birziklatutako beste material batzuez eginak. Aktore batek manipulatzen du beste pertsonaia batzuk antzezten dituen bitartean, antzerki-joko dinamiko batean



## DANTZA ETA GORPUTZ-HIZKUNTZA

Hizkuntza unibertsalaren magia sortzeko, zuzena eta beharrezkoa den hitza gorputz-hizkuntzarekin batera uztartzen dugu

# PROPOSAMEN ESZENIKOA



## MASKARAREN ERABILERA

Pertsonaia mitologikoak adierazkortasun handiko maskarekin irudikatzen dira



# JOLAS SINBOLIKOA

Arimaren ispiluaren erabilera barne itzalak irudikatzeko

# PERTSONAI MITOLOGIKOAK


INGUMA


GIZOTSO


KATTALIN LAMIA


PATXO IRATXO


ILARGI


TARTALO

# FITXA TEKNIKOA

**FORMATUA**
Antzerki familiarra, espazio itxi zein irekietara moldagarria

**INTERPRETE KOPURUA**
2 antzezle-manipulatzaile

**IRAUPENA**
60 minutu

**ESPAZIO ESZENIKOA**
Gutxienez, 6 x 6 metro

**MUNTATZEKO DENBORA**
2 ordu eta 30 minutu (kalean bada)
5 ordu (espazio itxian bada)

**DESMUNTATZEKO DENBORA**
ordu 1 (kalean bada)
ordu 1 eta 30 minutu (espazio itxian bada)

**BEHAR TEKNIKOAK**
Espazio diafanoa
Argi indarra

# FITXA ARTISTIKOA

**EGILEA**
Patata Tropikala Antzerki Laborategia

**ANTZEZLEAK**
Judith Poves eta Iker Etxarri

**ZUZENDARITZA**
Patata Tropikala Antzerki Laborategia

**ARGI DISEINUA**
Jaime Mayo (Junki)

**JANTZI DISEINUA**
Patata Tropikala Antzerki Laborategia

**MASKARAK ETA TXOTXONGILO EGILEAK**
Patata Tropikala Antzerki Laborategia

**ESZENOGRAFIA**
Zigor García

**MUSIKA**
Sergio Zurutuza

**DISEINU GRAFIKOA**
Oihane Elorza

# KONPAINIARI BURUZ

## "ANTZERKIA MUNDUA ERALDATZEKO TRESNA BAT DA"

**Patata Tropikala Antzerki Laborategia** haurrentzako eta familientzako antzerkian ibilbide luzea duen konpainia da, 18 urtez eszenatokietan eta sortutako 15 obra baino gehiagotan bermatua. Bere talde artistikoa *Lecoq* metodotik dator, keinu eta sorkuntza-antzerkian oinarritutako prestakuntza da, non gorputzak, mugimenduak eta irudimenak funtsezko papera betetzen dute narrazio eszenikoan.

Entretenimenduaz haratago, Patata Tropikalek gizarte-gaiekin konprometitutako antzerkiaren aldeko apustua egin du, haurtzarotik gertuko ikuspegitik. Bere ikuskizunek feminismoa, hezkidetza, ingurumena, harreman osasuntsuak eta genero-identitatea bezalako gaiak jorratzen dituzte, antzerkiaren magiaren bidez berdintasunaren, errespetuaren eta kontzientzia ekologikoaren balioak sustatuz.

Estilo fresko, dinamiko eta bisualki zirraragarriarekin, konpainiak lan bakoitza adin guztietako publikoarentzat aberasgarria den esperientzia bihurtzen du.



LAMIAREN ISPILUA BIDEOA

## *KONTAKTUA*

www.patatatropikala.com

patatatropikala@gmail.com

653 712 367 · Iker

Patata Tropikala antzerkia